

opusdei.org

Alvaro del Portillo

(Madrid, 1914 - Roma, 1994)

2006 Api 6

Alvaro del Portillo, San Josemariaren lehen ondorengoa Opus Deiren buru bezala, Madrilen jaio zen 1914ko martxoaren 11n.

1935ean Opus Deiren kide egin zen. 1944ko ekainaren 25ean apaiztu zen. 1940tik 1975era Opus Deiren Kontseilu Orokorrean parte hartu zuen; 1940tik 1947ra eta 1956tik 1975era idazkari orokorra izan zen. Bide Ingeniaritzan Doktore zen.

Zuzenbide Kanoniko eta Filosofia eta Letretako (Historia saila) doktoregoak ere jaso zituen.

Aulki Santuaren erakunde desberdinetako aholkulari izan zen, hala nola Fedearen Irakasbiderako Kongregazioarena, Klerikoentzako Kongregazioarena, Santuen Auziendako Kongregazioarena eta Gizarte Komunikabideetarako Aita Santuaren Kontseiluarena. Vatikanoko II.a Kontzilioan lan egin zuen Laikoendako aurre-prestamen batzordearen lehendakari bezala lehenik, eta Klerikoen diziplina batzordearen idazkari eta beste batzorde batzuen aholkulari bezala gero. Bere liburu hauek, *Fieles y laicos en la Iglesia* (1969) eta *Escritos sobre el sacerdocio* (1970), neurri handi batean, esperientzia horren ondorio dira. Zuzenbide Kanonikoko Kodearen Berrikusketa Batzordearen kide bezala, gaur egungo Kodearen

prestaeran ere parte hartu zuen,
Joan Paulo II.ak 1983an aldarrikatua.

1975ean Escriva Monsinorearen
ondorengo hautatu zuten. Opus Dei
Prelatutza Pertsonal bezala eraikita
izan zenean, Aita Santuak prelatu
izendatu zuen. 1990ean Joan Paulo
II.ak apezpiku izendatu zuen eta
1991eko urtarrilaren 6an ordenatu.

1985ean Gurutze Santuaren
Erromatar Zentro Akademikoa eraiki
zuen Erroman, Gurutze Santuaren
Unibertsitate Pontifikalaren hazia.

Opus Deiren buru izan zen 19
urteetan, Prelatutzaren lana hogeii
nazio berritara zabaldu zen.

Erroman hil zen, 1994ko martxoaren
23an. Joan Paulo II.a egun hartan
bertan joan zen haren gorpuaren
aurrean otoitz egitera.

- Alvaro del Portillo monsinorea:
Santuen Prozesuetarako

Kongregazioan dago, aztergai, Positio
super vita et virtutibus eta, haren
bitartekaritzaz, ustez, lorturiko
mirari baten Positio

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/alvaro-del-portillo-3/](https://opusdei.org/eu-es/article/alvaro-del-portillo-3/) (2025
Mar 30)